

## BERGARAKO UDALA

### OBRA ETA ZERBITZUETAKO BRIGADARAKO BIGARREN MAILAKO OFIZIAL IGELTSERO LANPOSTUA BETETZEKO BARNE PROMOZIOA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

=====

#### 1.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da **Obra eta zerbitzuetako brigadarako bigarren mailako ofizial igeltsero** lanpostua betetzea lehiaketa-oposizio bidez eta barne promozioan.

Lanpostua sailkapeneko **C2 azpitaldekoa** da, eta ordainsariei dagokionean 13.mailari dagokion Destino Osagarria eta udal lan hitzarmenak jasotako soldata tauletan 9. Osagarri Espezifikoa ditu. Halaber, 2. hizkuntz eskakizuna dagokio, derrigorrezkoa.

Lanegunak eta ordutegia udalak urtean-urtean finkatutakoak izango dira, betiere lanpostuaren izaera eta premien arabera, adibide gisara Bergarako jaietan, San Martin jaietan, San Martzial jaietan, Zuhaitz egunean, Erramu Zapatuan eta horrelako jaietan antolatzen den egitarauak eskatzen duen langile-premiari erantzuteko lan egin beharko du, guztiak egutegian aurreikusi eta urteko lan egutegia osatzeko erabiliko direlarik.

#### 2.- Betekizunak

Deialdi honen xede diren lanpostuen eginkizunak, besteak beste, ondoko hauek dira:

- Langilezainarekin edo bere buru denarekin bildu, lanak banatu edo/eta zerbitzuaren gorabeheren berri emateko.
- Hormigoizko elementu ezberdinak egin: enkofratuak, sare elektrodoldatuak, burdin barrak ezarri, hormigoia bota eta bestelako elementuak ezarri.
- Harrizko horma txikiak egin.
- Teilatuetan mantenimendu lanak burutu..  
Urbanizazio lan ezberdinak burutu: basamentuak, baldosak, zintarriak, galtzadarrak, jarlekuak, etab.
- Kanalizazio ezberdinak egin.
- Adreiluzko nahiz blokezko hormak altxatu, plomua, nibela, eskuadra eta bestelako erremintak erabiliz.
- Zolatuetarako rekreziak egin.
- Udal taulatuak eta aldamiok muntatu, hesiak, olanak...
- Plakadura ezberdinak egin: azulejoa, harrizko plakak....
- Zolatu mota ezberdinak jarri: terrazoa, zeramikazko lauza txikiak, harrizko zolatuak, baldosa hidraulikoa, hormigoizko zolatuak eta bestelakoak.

- Kanalizazioak mantendu eta garbitu.
- Jaien antolaketarako taulatuak, egiturak, aldamiok, hesiak, toldoak, itxiturak eta bestelakoak muntatu.
- Lanpostuarekin eta kategoriarekin zerikusia izanik zerbitzu-buruak agintzen dizkionak.

### **3.- Izangaiek bete beharrekoak**

Onartuak izateko eta, hala badagokie, deialdian parte hartzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiek:

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.  
Parte hartu ahal izango du, era berean, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideak, betiere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak ere, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, eta adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.  
Era berean, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan bizi eta aurreko paragrafoetan sartu gabe dauden atzerritarrek. Hauek aukeratuak izango balira, kontratuaren objektu den jarduera burutzeko administrazioaren baimena dutela probatu beharko dute, aipatutako kontratua egin baino lehen.
- b) 16 urte beteta izatea.
- c) Eskola graduatua edo parekoa den titulazio maila izatea.
- d) Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.
- e) Diziplinazko prozeduraren bidez Administrazio Publikoetako erakundeen zerbitzutik bereizitakoa ez izatea, eta administrazio publikoan jarduteko gaitasunaz gabeturik ez egotea.
- f) 2. Hizkuntza Eskakizuna izatea, derrigorrezkoa.
- g) B motako gida baimena edo baliokide baten jabe izatea.
- h) Bergarako udaleko E edo C2 taldeko lanpostu batean langile finkoa izatea, gutxienez, bi urteko antzinatasunarekin.

### **4.- Eskabideak**

Eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Eredua Bergarako Udaleko Erregistroaren Bulegoan emango dute, eta oinarri hauei erantsirik doa.

Lehiaketa-oposizioan parte hartzeko eskabideak Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta ondoko baldintza hauek bete beharko dira atzera bota ez daitezen:

- a) Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola.

b) Eskabidearekin batera, ondoko agiriok erantsiko dituzte:

- Nortasun agiriaren fotokopia.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.
- Hala badagokio, eskatutako hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko tituluaren edota egiaztatzearen fotokopia.
- Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak, lehiaketaren fasean baloratuak izateko.

Laneko esperientzia egiaztatu beharko da lan egindako Enpresek edo Administrazioek egindako ziurtagirien bidez, bertan kontratuaren iraupena eta lanaren eginkizunak zehaztuz. Esparru pribatuko esperientzia egiaztatzeko, gainera, Gizarte Segurantzari kotizatu izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

Eskabidean Bergarako Udalean egindako zerbitzuak eta laneko esperientzia adierazi baditu, ez da agiri bidez egiaztatu beharrik izango, eta izangai bakoitzaren espedientean azaltzen diren datuen arabera baloratuko dira.

Prestakuntza osagarriari buruzko merezimendua egiaztatzeko aurkeztuko duen agirian, haren iraupena zehaztu beharko du. Horrela egin ezean, Epaimahaiaren esku geratuko da merezimendu hori baloratzea ala ez.

c) Izangaiek eskabideetan adierazi beharko dute oposizio-aldiko ariketak Erkidego Autonomoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten.

Eskabideak, behar bezala beteta, Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dituzte, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasi eta hurrengo 20 laneguneko epearen barruan.

Eskabideak, era berean, 30/1992 Legearen (*azaroaren 26ko Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen*) 38.4 artikuluan adierazitako Administrazio Publikoetako erregistroetan ere aurkez daitezke. Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta, eskabideak aurkezteko epearen barruan, dagokion funtzionarioak data eta zigilua jarrita eduki beharko dute. Izan ditzaketan egitatezko akatsak, edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta.

## **5.- Izangaia onartzea**

Onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrendak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta Bergarako Udaleko iragarki-taulan jarriko dira ikusgai. Udalak 10 egun naturaleko epea emango du erreklamazioak egiteko, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 71. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Behin-behineko zerrendak, besterik gabe, behin betikotzat joko dira erreklamaziorik ez badago. Halakorik badago, berriz, beste ebazpen baten bidez izango dira onartuak edo baztertuak. Ebazpen horren bidez, behin betiko zerrendak onetsiko ditu Udalak, eta Udaleko iragarki taulan argitaratuko ditu.

Azken erabaki horren aurka administrazioarekiko auzien errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietarako Salan; eta horretarako epea bi hilabetekoa izango da, onartuen eta baztertuen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Hori,

ordea, ez da eragozpen izango, inork bidezkotzat jotzen badu, beste edozein errekurtsio aurkez dezan.

Aldez aurretik, eta hala nahi izanez gero, birjarpen errekurtsioa jarri ahal izango da hilabeteko epean.

## **6.- Epaimahaia**

**6.1. Osaera:** Deituriko hautaketa prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondokoak kontuan izanda eratuko da: Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 60. artikuluan, ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari buruzko 8/1989 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa. Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta Alkate-Lehendakariak erabakiko duen kideek osatuko dute eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari batek eta langileen ordezkariak izendatutako batek hartuko dute parte epaimahaian. Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkatetza-lehendakaritzak izendatuta.

Udalan presentzia duten alderdi politikoaren ordezkariak parte har dezakete begirale moduan.

**6.2. Espezialitatea:** Epaimahaiaren eraketa teknikoak izango da batez ere, eta boto eskubidea duten kide guzti-guztiek izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

**6.3. Abstentzia eta errefusatzia:** Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 28. artikuluan oharmandako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiek mahaikideak ezetsi ditzakete aipatu legearen 29. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

**6.4. Aholkulariak:** Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

**6.5. Eraketa eta lan egitaraua:** Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezkari gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorren antolatu, garatu eta ebaluatzeko neurri guztiak hartuko dira.

### **6.6. Jarduketa prozedura:**

a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezin osatu ahal izango da, eta jardun

ere ez, titularretako edo ordezkari diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude. Idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik. Idazkariak hitza baino ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Epaimahaiak ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere lanpostua beteko dela ziurtatzeko xedez, hautatutako izangaiak behin betiko kontratua sinatu baino lehenago uko egiten badu, proposaturiko izangaien ondorengo izangaiez osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiari.

d) Izangai batek ere gaindituko ez balitu baztertzailleak diren proba guztiak, lanpostua bete gabe geratuko da.

Ariketak epaituko dituen Epaimahaia kide titularrez eta ordezkoez osaturik egongo da, eta horien izendapena argitara emango da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan.

## **7.- Gaitasunaren faseko ariketak**

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Bergarako Udaleko iragarki taulan argitaratuko da lehenengo ariketa egiteko deialdia, eta han adieraziko da azterketa zein egun, ordu eta tokitan egingo den. Ondorengo deialdiak Epaimahaiak iragarriko ditu, aditzera emateko egoki deritzon moduan.

Gaitasunaren fasean ondoko ariketa hauek egingo dira:

### **—Lehen ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzaillea.**

Ariketa hau bi frogek osatuko dute:

1. Froga teorikoa. **Obretako bigarren mailako ofizial igeltsero** lanpostuaren eginkizunekin eta eranskinean jasotako galdetegiak jasotako gaiekin zerikusia duten galderei erantzun beharko zaie. Epaimahaiak erabakiko du izangaiek erantzun beharrekoa test modukoa izango den edo ez, eta nola puntuatuko den.

Froga honetan gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira.

2. Froga praktikoa: **Obretako bigarren mailako ofizial igeltsero** lanpostuarekin zerikusia du(t)en froga(k) egin beharko dute(dituzte).

Froga honetan gehienez 20 puntu lortu ahal izango dira.

Prozesuan aurrera jarraitzeko derrigorrezkoa izango da froga bakoitzaren puntuazioaren %50 ateratzea.

### **— Bigarren ariketa: Euskara proba, derrigorrezkoa eta baztertzaillea.**

Euskarako froga. Izangaien euskara maila neurtzeko ahozko eta idatzizko froga egingo da. Derrigorrezko 2. hizkuntza eskakizunari dagokion euskara maila dutela egiaztatu

beharko dute. Ez da punturik emango eta izangaiak gai edo ezgai sailkatuko dira, froga hau gainditzen ez dutenak hautaketa bidetik baztertuta geldituko direlarik.

Ez dute froga hau egin beharrik izango ziurtatzen dutenek 2. hizkuntza eskakizunarekin parekatutako agiriren baten jabe direla, betiere, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria egokitzeko apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuak jasotakoaren arabera.

Egiaztapen hau froga hasi baino lehen aurkeztu beharko da.

### **8.- Merezimenduen fasea.**

Epaimahaiak ondoko merezimendu hauek balioztatuko ditu, baldin eta, laugarren oinarriko b) atalean xedatutakoaren arabera, eskabidean adieraziak eta agiri bidez egiaztatuak izan badira, eta, betiere, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan hartuz:

—1. edo 2. mailako ofizial igeltsero mailarekin eta lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duen lana: gehienez ere 6 puntu arte, eta hileko gehienez ere 0,15 puntu.

—Igeltserotzako peoi espezialista edo peoi lanpostuaren eginkizunekin erlazionatuta egindako lana: gehienez ere **3 puntu** arte, eta hileko 0,05 puntu.

Merezimendu horiek lan egindako Enpresek eta zerbitzuak bete diren Administrazioak luzatutako ziurtagirien bitartez eta Gizarte Segurantzak luzatutako laneko bizitzaren agiriarekin lagunduz egiaztatu beharko dira. Egiaztagirietan betetako funtzio guztiak zehaztu beharko dira eta ez badira lanpostuaren eginkizunen artean jasotako gehienak aipatzen epaimahaiak erabaki ahal izango du nola baloratu. Kotizazio agirietan ofizial kategoriari dagokion kotizazio maila izan beharko da eta gutxienez 6 hilabeteko iraupen jarraitua izan beharko dute baloratuak izateko.

— Prestakuntza-ikastaroak:

Deialdiko lanpostuaren edukiarekin zerikusia duten prestakuntzako edo hobekuntzako ikastaroak: gehienez, **2 puntu**. Ikastaro edo jardunaldi horietan emandako ordu-kopurua kontuan hartuko da eta baremo hauek erabiliko dira:

- 10-40 ordu arteko ikastaro bakoitzeko: 0,15 puntu.
- 41-80 ordu arteko ikastaro bakoitzeko: 0,25 puntu.
- 80 ordu baino gehiagoko ikastaro bakoitzeko: 0,75 puntu.

— Lanbide heziketa igeltserotzako erdi mailako zikloko titulua izatea, 2,5 puntu eta goi mailakoa izatea, 3 puntu. Goi mailakoa puntuatzen denean ez da erdi mailakoa puntuatuko.

### **9.- Gaitasunaren fasea garatzeko era**

Epaimahaiak, hala erabakiz gero, alda dezake zazpigarren oinarrian adierazitako ariketen hurrenkera, eta egun berean proba bat egitea ere erabaki dezake.

Epaimahaiak ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak, baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere, hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

Gainditu beharreko ariketa bakoitza burutu ondoren, Epaimahaiaren erabakiz, iragarki taulan emango da argitara ariketak gainditu dituzten izangaien zerrenda.

## **10.- Epaimahaiaren proposamena**

Izangai bakoitzak bi fasetan lortu dituen puntuak batuta aterako da haren azken kalifikazioa, eta batura horrek erabakiko du izangaiak lehenesteko hurrenkera.

Puntuetan berdintasuna gertatuz gero, ondoko irizpide hauen arabera ebatziko da, jarrita dauden hurrenkeran:

- a) Proba praktikoetan puntu-kopururik handiena ateratzea.
- b) Proba teorikoan puntu-kopururik handiena ateratzea (1. ariketa).
- c) Epaimahaiak erabakitzen duen irizpidea.

Ariketak balioztatu ondoren, Epaimahaiak iragarki taulan agerian jarriko ditu neurketa gainditu duten izangaien izenak, lortu dituzten puntuen arabera hurrenkeran antolatuta: puntu gehienekotik gutxienera.

Era berean, hautatutako izangaiaren izena argitaratuko du, deialdian iragarritako lanposturako kontratazeko proposamenarekin.

Epaimahaiaren iritziz deialdira aurkeztutako izangaien artean ez badago lanpostuak betetzeko gutxienera baldintzak betetzen dituenik, lanpostuak bete gabe aldarrika ditzake.

Epaimahaiak ezingo ditu, inolaz ere, deialdiko lanpostuak baino izangai gehiago proposatu.

Epaimahaiak Bergarako Udaleko organo eskudunari igorriko dio akta, behar diren kontratazioak egin ditzan.

Proposatua izan den izangaiak, hautatutako izangaiaren zerrenda argitara ematen denetik hasi eta 20 egun naturaleko epean, deialdian parte hartzeko oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztuko ditu.

Ezarritako epean, eta ezinbesteko arrazoiren batengatik izan ezean, izangaiak agiriak aurkezten ez baditu, edo eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ez badu, ezingo da kontratatu, eta bere jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira. Kasu horretan, lehiaketa gainditu eta azken kalifikazioaren hurrenkeran ondoren dagoenaren edo daudenen aldeko proposamena egingo du organo eskudunak.

## **11.- Kontratazioa-Praktikaldia**

Alkate-udalburuak epaimahaiak proposaturiko izangaiari kontratu finkoa egingo dio, legeak aurreikusitako frogaldia izango duelarik, hau da bi hilabetekoa.

Frogaldi honek hautaketa prozesuaren atal baten izaera izango du eta azken balorazioa gai/ez-gai izango da; udal Iragarki Taulan argitaratuko da.

Epe hori amaitu aurretik, dagokion arduradunak langileak egindako lanari buruzko txostena egingo du, eta erakutsi dituen gaitasunak hartuko ditu kontuan txosten horretan:

- lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta eraginkortasunaren zentzua, lanerako prestasuna eta ekimena, eta lanarekiko interesa.

- Lan taldera moldatzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan.

Behin behineko ezgaitasun egoeragatik, amatasunagatik, aitatasunagatik eta adopzioa edo harreragatik lizentzia hartzeak frogaldiaren etenaldia suposatuko du eta lanera bueltatzerakoan falta den frogaldiari dagokion epea berriz hasiko da zenbatzen.

Behin betiko kontratua egin aurretik enpresa medikuaren ikuskapena pasatu duela eta lanpostu honi dagokion eginkizunei aurre egiteko gai dela adierazten duen ziurtagiria eta zinpeko aitortpena aurkeztu beharko ditu, bere osasun egoera ona dela eta lanpostuaren eginkizunak betetzeko gai dela egiaztatzeko.

## **12.- Dokumentazioa Itzultzea**

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiek, kontratatuko direnek eta lan-poltsarako izendatuko direnek izan ezik.

Hautaketa prozesua bukatu eta 3 hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du Udalak.

## **13.- Prozesuaren Argitalpenak.-**

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizioaldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) Bergarako Udaleko Web orrian ere argitaratuko dira ([www.bergara.net](http://www.bergara.net)).

Datu pertsonalen babeserako araudiari jarraituz, edozein izangai edo partehartzailek izango du bere datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatzeko eskubidea; horretarako eskaera aurkeztu beharko du helbide honetara bidalitako idatziaren bitartez: Bergarako Udala, San Martin de Agirre plaza 1, 20570 Bergara.

## **14. Gorabeherak.**

Epaimahai kalifikatzailea eskuetsirik dago sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta lehiaketa-oposizioaren jarduera ona zaintzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan eta aplikazio osagarriko legedian xedatu ez diren kasuetarako.

## **15. Inpugnazioa.**

Interesdunek oinarri hauen aurka egin dezakete –inpugnatu–, indarrean dagoen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako epe eta moduan.

## 1. ERANSKINA

### GAI ESPEZIFIKOAK

1. Laneko arriskuen prebentzioa. Norbera Babesteko Ekipamenduen Balorazioa, aukera egin eta erabiltzeko (Kontseiluaren 89/656/EE Zuzentaraua, 1989ko azaroaren 30ekoa).
2. Laneko arriskuen prebentzioa. Igeltsero eta zimendatze lanetan kontuan izan beharreko segurtasun irizpideak.
3. Igeltsero laneko erremintak eta tresnak. Erabilera eta kontserbazioa.
4. Enkofratu eta hormigoitze lanetako erremintak eta tresnak. Erabilera eta kontserbazioa.
5. Igeltserotzan erabilitako materialak. Ezaugarriak, sailkapena eta deskribapena.
6. Enkofratu eta hormigoitze lanetan erabilitako materialak. Ezaugarriak, sailkapena eta deskribapena.

7. Tabikeen zuinketa eta eraikuntza. Exekuzio agindua, erabili beharreko materialak.
8. Hormigoizko zola eta zoladurak. Exekuzio moduak, materialak.
9. Hormak zarpiatu eta egokitzea. Exekuzio agindua, materialak, erremintak eta tresnak.
10. Zoladurak eta alikatatuak.